# Sorgiñak 1935

( 1935'gn Garillean )

1)

# Arta-jorak laga ta sorginak gogora

— "Bat, bi, iru.....! Iru? Irurak baño ez? Arano arzanua!, ederá sartu yaustak gure....; ez dok lenengoz baña. Irurak aspaldi jo ebela ta sailera urteteko sasoia zala antxiña esan yaustak ba. atso motxiak — zelatari-kerka barik diardu mormor atadian norbaitek. Aterako al-da kanpora ta nagon piska baten. Alperik baña, eten-bako mormoria. Itxagon eta entzun dagiodan.

— "Eguzki galdetan baño gure intxaurpean giro obea izango yuagu. Egazkiak eurak be, ao-zabalka ta ni oraiñ solora? Eguzki-goritan arta-joran ekin? — geruago ta biziago darai — Goixian joratu doguzan sailak etxaukak ba. itxura aparta. Aurtengo arto-ereitietan, be, atso demoniñuon esanak egin izan ba-nayuezan gure etxaurrean ez eban ikusiko orain arto sail guririk."

"Bere kolkorako ala beste norbaitekin ete-dago baña gure.....

Orixe gizonaren zitala; ez dok, ba, olekua gure aitita — niñuan neure kolkorako. Lo-eriaren kontuak. Amar-ogetaz urtietako agureak artajorarik barik be. naiko zeregin [tailetan] izaten dau baña; eta gure aitita be, eguerdi-osteko laburtxoa egin ostean artajorarako gogo barik [tentsun-puntu] etxustzak oz al-zauz arituko, ene irakurle.

Eta ba-dator; artajoraia ta guzti atadira da. Ondiño be, orain agortu yako baña jariua. — "Aldatu bako pirulandarea gurean be, etxean baña, — diño — eta aldatu-bako pirulanderea etxean dan lekuan agure buru zuria izanarren, be, lakarik sailian eta etxean iñoren mendean. Araie-araiea! artajorara ni...?"

Eta ora, irakurle, artajoraia laga atadian, aren ordez artzi pipea eskuan eta "danga-danga" nen ~~nengoan~~ [nagon] intxaur perunte dator. Ez nau ikusi baña. Eta

— "Kaixo aitita 2" dirautsot intxaurpera orduko — arratsalde on?"

2)

— Demoniño demoniñua, emen az? Aspaldian ez az agertu ta...

— Artajórara ta lagunik bear ba-zendu edo, emen naz ni...

— Jari adi emen! i barik be, egingo yuaguz artajorrak eta...?

Eta intxaurpean dagozan aulkieten jari gara. Aititarekin kontu kontu ta ikusi nauanean amuma be agertu da. Eta nauk ezer esateko, juan etxera ta mai aundia dakar intxaurpera. Nik ez dakit zertarako ninduan aren begiz jo eban amumak ausago.

— Berotxuago ba'lego edo, itxaron be, egingo dogu guk gero — dirauntso amumari aititak.

— Zeri itxaron bana...?

— Zeri diñozu esaten dozu? Bazkal-ostean kanpokoren bat danean zer oitzen da?

— Umetxok, bai, ba-yakik zelan eskabidea egin. Egunde onako...? — ta ba-dua arin-arin eztaratzerantz. Eta or dator gerotxuago, akeitontzi aundia eskubatean ta bestean tikara ta bonbil aundia artuta, gure amuma. Juan dira eguzki-goritako arta-jorrak.

Arteetan aize-kuzumarik be, ez dagu izan eta orain orra emen ipar-aize leunetan. Aurrez-aurre alkarri begira jari ta aititak pipea erretzen eta nik idazkurka, atzamerétan ekiteko gertau gara. Artegun buru-zurgia danik nork esan? Arta-jorrak iluntzerako laga ta sorgiñak gogora; atan orretan aririk gera.

"— Nai dabenak, nai dabena esango yok; dan-danak guzurrak diranik (diranik) inork etrautsak sartuko niri bana. Eta a ikusi eban beste geiagok be ikusi-aurretik. Ostera, barrikotea ta panparrikeria ugari yuen, beste "mutiko" an ikusi ebenean egundokuetan buru-ak makurtu ta ixildu zuazan — aititaren jarduna dozu irakurle ta etorria, dabenarte aririk goldu ta bidekatu ez, ladin laga dagiogun —

3)

Berogei urte inguru izango dira — geuk etxe au egiten giñarduanean zan-eta. Laituko karabian, kare-giñan genbiltzan. Zortziamar gizonezko itargi-argitan jari ta konta-konta ta berriketan gengozan karabi-aurrean. Karabi-eretietan ardaorik ez da palta izaten eta an be ba-genduan. Zurrut eta zurrut ilunetan ala egun-argitan gengozan be, ez ekien batzuk kontizu ta zeiñek baño zeiñek kontenkeri ta panparroikeri aundiagoak esan ebilzan. Batak sorgiñik eta lamiñerik egundo ez zala izan, oreik antxiñako zaren amesak zirala t.a, egundo alako txilimalarik. Laitu zarak eta nik olakorik esateko ixilik egoteko giñotsoen. Danak gora-gorala asi ziran eta nork baretu oreik? Jauka ta algadaz zirala. Arteaga ostean berebiziko argi bat agertu zan. Argi ari susmo txarra artu neutson nik eta Laitukoaren ixildu edizala esan neutsoen. Nire esanei adaditxo txakurraren arrausiñei baño jaramon geiago egiteka, esan-alakoak esaten eta zana zalako argiari ba dagoka asi ziran. Berehala geu gengozan tokirantz asi zan argioi.... geroago ta urerago etorkun..... urera zanean aotik sua-erion txarri bildurgarria irudian.... Kristua iruntzeko baño be leriago ta arnasa-artzeko baño be estuago egon nintzen ni beintzat. Ez nenkian inguruan iñor nebenik be; lurrean ala airean egon nintzanik ez dakit; "aitearen" bat egiterik, ez "esus" bat esaterik etxatan gomuteratu. Gure inguruan jira egin eta atzera eskutatu zan Arteaga-ostean. "Zuuntz-argia" izan zan kontizu argi-txarrioi. Eskutatu ta gero be, txistik esateko, adorerik ez eukan iñork gure artean. Karabi-atakan, sutonduan katu epelak baizen, makal eta ixilik egon ziran gure panparroiok be, beste "mutiloi" ikusi eben-ezkero. Belaunak be, indar barik geratu ei yakoezan.

Esandako au neuk, neure begiz ikusia, ook eta iñork etzaustak ukatuko ta guzurrtituko.

— "Sorgin, Lamiña ta beste mutilok" "Aitearen" egin, "Jesus" esan edo bere bidez ta zuzen dabilzan gizonei ez ei-yautsoek ezer egiten. Or, Orobio'ko etxeburuan, be, ba ei-dok leze-zuloren bat. Antxiña sorgiñak bizi ei-zuazan eta Orobio'ko gizonak egunero sorgiñekin bazkaltzen ei-yuan. "Bapo-bapo" bazkaldu ostean "Aitearen egiten ei-yuan eta jatordu-osteko otoizak esan baña, ta sorgiñak sekulo ez ei-yautsoen ezer egin ari.

Aulestia'ko Korta'tar Peli egur-iñaustera juan ei-zuan "Indulgentzi egun batez mezatarako sasoian. Eta zugatz-gaiñera zanean (txakur-antzeko), begietatik sua erion (1) pizti zakar bat aurrera ei-yakon, eta Eleizakua amaitu-arte aurretik ez ei-eutson alde.

Esanak esan sorgiñik eta ez danik ezin siñestu lei. Malax-Arteaga'n be, urte beteren buruan mats-adarretik esegita euki yuen sorgiñen urregorrizko antoxiña. Leza-atxa baten umeak idoro ei-yuen. Eta urte buruan jauberik ez ei-zuan azaldu ta ontzako bategaz galdaragin bateri saldu ei yautsoen.

Zubero'n bertan be, amaikak ikusi yuen sorgiña. Zubero'ko alabeak sorgiña egin ei-yuan adizkide ta neskatileoi sorgiñakin eskontzeko asmuetan ei-zuan. Sorgiñakin euren alabarik ezkondu eitenik ez ei-yuen nai baña gurasuak eta olakorik jazo ez eitean, gurasuak eurak neskeari biotza zulatu ta odoluztu egin ei-yuen. Kezan sartu neskearen gorputza ta auzotarrak gaubelea egiten egozala, etori ei-zuan sorgiñoi ta danen aurrean urregorrizko oegañekoa edo sobrekamea zabaldu ei-yautsoan neskeari ta alde egin ei-yuan. Gaubelan egozanak sobrekameoi kezeara i untzez josi ei yautsoen. Egun-sentian baña etori ei-zuan sorgiñoi ta oegañekoi untzez josita eguanarien, gabez zabaldu baizen erez

5/

eskatu ei-yuan eta berakin eruan.......

— "Acrabar'en Berano'ko neskatileari yazo yakona, bein baño geiagotan entzun yuagu. Len esan dodanez, sorgiñak eta beste parte-txarietako mutilak uxatzeko "Jesus" bat esatea naiko izaten dok. Bayakian ori Berano'ko neskeak, be; ori alde batera laga ta Maguregi Goiti'ko mutilarena esango dauat bana oraiñ.

Barinaga'n kanpantorrea egin nai yuen. Antxiña baña Erroma'tik baimen edo lizentzik ekarteka ezin egin eikean kanpantorrerik. Maguregi Goiti'ko mutila yian zuan Erroma'ra baimen-eske. Erroma'n emon yautsoen baimena; biaramon goizeko seiretako Markiña'ko "Justiziari" parte emon edo presentetakotan emon yautsoen baña. Erreztxua emotea edu zan baña ori; Erroma'tik Markiña'raño egun baten zelan eldu? Gaitel zan gure Goiti. — "Inpernuko deabruak, be, ez dau sortuko kontizu, biar goizerako Markiña'ra eruango naikenik." — esan eban Goiti'k. Bat-batera aker bat, ez dakit nondik, agertu yakon eta — "jarri adi nire lepuan" esan eutson zer nai eban galdetu ostean — "ari diablo! esan egiok eta akerrari urre ondo emon egiozak."

Jarri zan aker gaiñian gure Goiti ta ori dua itxumustuan "rikiti-rikiti" galdu-gordean.

Jomeiñ-lurako otakarra ziran eta bostetako kanpaiak Karmeñ'en.

— "Nunguak dira kanpai orreik — " itandu eutson Goiti'k akerrari.

— "Markina'kuak — dirautzo akerrak.

— "Markiña'kuak!! ¡Jesus! — diño Goiti'k.

¡Jesus! diadera entzun ebanean akerra orrek, anka-gora jaurti eban gure Goiti ta ijutika iges egin eban.

Eta gure Goiti seirak aurretik Alkatearekin ei-ebilan batera ta bestera Markina'ko kontsejupean.

Akerrari esker dauak kanpantorre edarra dogu oraiñ Barinaga'n.

Gaurko naiku kontu ez ete-dok? Etiñaldi polita egin yuagu. Onezkero.... orduak aurera yuazak."

Gaietz naiko izango dala dirautsot nik, be ta ora egin-egiñean "danga-danda" ordua Bariñaga'ko dorrean.

Bat, bi, iru, lau, bost.... Aratsaldeko bostetan intxaurpean laizen giro ona estaratzean, be. Txinmintik gora urteten daben fletxuak eta sutako "pir-pir" otsak naiko dei dirala-ta ba-guaz berura.

An zer egin genduan ba-ninotsatzu, ene irakurle, jakin-miña aseko neuskizu, baña upatxuak kilikilia sortuko neuskizu ta nagon isilik.